

EUSKARARI KANTACHOA.¹

ITZ-AZALKIA.

Premiazkoa
 Da gure izkuntz garbia,
 Naasi ez dediñ
 Euskaldunen jatorria.

Apirilleko egunsentian
 Ditudanean entzuten,
 Arbol tantaien orri tartean
 Chori politikak kantatzen,
 Ikas gabeko *chin-pin-kuluiz*
 Zeruai diosal egiten,
 Arrigarrizko bozarokia
 Dutelarik moldatutzen,
 ¿Zeñen aundiak diran Jaunaren
 Estalpeak, det pensatzen!
 Ausen bera zait gertatutzen maiz
 Gure izkuntz ederrakin.
 ¿Bizi diteke, diot neregan,
 Añ osasun onarekin,
 Naasi gaberik munduan izan
 Diran beste izkuntzakin,
 Etsai gogorrek, kupida gabe
 Egin dioten gudakin,
 Aingeruchoen Izkuntz-gilleak
 Ez baldin bazuen egiñ?
 Ainbeste eunkiren buruan ¿zeñek
 Galdu gaberik gorde du?
 ¿Nolaetzuten, esitu arren,
 Izkuntz arrotzak garaitu?
 ¿Nola gaztelu eziñ artua
 Balitz bezela gelditu
 Mendi oetan, ziradenean
 Ujolaren gisa sartu
 Ipar egotik, euren izkuntzak

Porchaz nairikan paratu?
 Baldin izkuntzik zarrenetatik
 Asko ezpadira bizi:
 Jakintsuenak, ernegazioz,
 Eziñ badute ikasi
 Non izan zuen asiera ta
 Nondik zitzaigun etorri:
 Guraso edo aiderik duen
 Iñork ez baldin badaki,
 ¿Nor arrituko ez da begira
 izkuntz paregabe oni?
 Nagusiturik zeuden izkuntzak
 Bizia galdu badute;
 Liburuetan chokoratuak
 Arkitutzen badirade;
 ¿Nola gure au dago añ sendo
 Añ indartsu eta gazte?
 Guda, galmen ta naspillak ¿nola
 Deserritu ez digute?
 Jaungoikoaren lana ez dala
 ¿Sinistu genezaguke?
 Onen iturri garbietatik
 Edan gabeko izkuntzik,
 Munduan asko izandu arren
 Ez da kasi bat bakarrik:
 Ugaria da, eta aberatsa;
 Ez dio iñori zorrik:
 Ez da beste bat ezagutuzten
 Au dan beziñ egokirik,

(1) Composicion premiada con *Un accésit* en el certamen celebrado en Pamplona en 1884. (V. pág. 357).

Onek bezela gauzen izenak
Azaldutzen dituenik.

Ore gabeko gau biguñean
Zeru urdinpeko izarrak:
Kolare denak dituen argi
Eder baten distierak:
Ibar bateko mendi, zelaiak,
Iturri eta errekek:
Sarjin batean auta litezken
Lorerikan ederrenak,
Iruditutzen zazkit euskera
Zarrak dituen itzerak.¹

¿Zeñek azaldu Subero eta
Lapurdi itzera goisoak?

¿Zeñek Bizkaia ta Naparroko
Itz labur doaiñezkoak?

¿Zeñen lirañ ta leun ez dira
Mintzatzen Gipuzkoakoak?

Aiñ mintzoera eder, ariñak,
Eta egokindekoak²

Dira animaren zentzuak sor ta
Gor uzteko modukoak.

Arboladira bildutzen diran
Egaztien *pi pi piak*:

Ots me ta lodiz moldatutako
Alosi arrigarriak

Arbiska eder distiarien
Barrunba imitezgarriak:

Chistu, dulzaina, euskal-erriko
Artzain chirola guziak

Jotzen dituzten soñuen antza,
Dute oen berzegiak.³

Aiñ eztitsuak, alositsuak
Ta biguñak dira ezik,
Musikarikan ez da oekin
Konparatu ditekenik.

Ez da arkituko, emakumeentzat,
Batezere, jolasgairik,
Trebeki, erraz, gozitez ta ariñ
Mintza ez dezatekenik.

Ez det nik uste munduan dala
Au beziñ izkuntz ederrik!

Gozoak dira lore zurien
Geldi gabeko usaiak:

Guztiz ederrak amoriozko
Chorien kantu eztiak:

Aur bati ezañ biguñetatik
Darizkion itz naasiak;

Bere amari egiten dizkan
Parriska miragarriak:

Bada, orien ichura dute
Euskararen itz garbiak.

Arroka bati darion leiar
Ura da Aitorren izkuntza:

Ez du arantza pozoiturikan,
Guzia da lore utsa;

Zeren itz loirik eta arnegurik
Esateko ez da gauza:

Bere iztegi ugaritsu ta
Liburuetan ez beza

Mingaña zikin dezaken itzik
Arkitzea iñork pensa.

¿Nola ez ditu bere oiturak
Izango gaitzikabeak?

¿Nola ez garbi eta zuzenak
Lege zar paregabeak?

Baldin apaintzen badute erri bat
Bear diran birtuteak;

Zintzo kunplitzen baditu beti
Dituen eginbideak,

¿Nola ez ditu egiazkoak
Izango Libertadeak?

(1) Dialectos.—(2) Filosóficos.—(3) Variedades de sus dialectos.

Baña ¿zér dira prenda aín eder ta
 Zoragarriak izango,
 Kariñoskiro begiratutzen
 Euskarari ezpazaio?
 ¿Zer dorre baten apaingarriak
 Azpiak palta ezkerero?
 Amorioa dezaiogun ¡¡ai!!
 Biotzean gorde bero,
 Fueroen argi distizaria
 Ikus dezagun berriro!

¿Zér dira izango arbola baten
 Ninika, lore, frutuak,
 Baldin badio sustar sendoak
 Ebabitzen altzairuak?
 ¿Lezateke egiñ itzalik berriz
 Aren adar orritsuak?
 Bada, euskera galdu ezkerero,
 Arkitzen dira galduak,
 Euskal-erriko doaiak, Jaunak
 Zerutikan biralduak.

¿Umezurtz gisa utziko degu
 Alde bat? milla bider, ez:
 Zeren guraso zarrak bezela
 ¡Aurrerá! oju egiñez,
 Fede biziáz zenbat umeren
 Biotzak suturik ziñez,
 Alchako dute auts tartetikan;
 Eta guk uste degunez,
 Mendiak zelai biurtu arte
 Ez da izkuntz au illko, ez.

Premiazkoa da gure euskera
 Kondaira egíztatzeko:
 Premiazkoa, izkuntz guzien
 Itz-jaiotzak billatzeko:
 Premiazkoa, kondairaurreko

Illunpeak argitzeko;
 Sare lodiak alchatu eta
 Bideari jarraitzeko:
 Premiazkoa, Españiaren
 Asierak arkitzeko.

Premiazkoa, naasi ez dediñ
 Gure jatorri garbia:
 Premiazkoa, nor bere dediñ
 Beti izan Euskal-erria:
 Premiazkoa, ez dezan galdu
 Bere sellu azgarria;
 Tubal etorri ezkeroztikan
 Duen molde berezia:
 Premiazko zatituzeko
 Erdaldunen uztarria.

Esnaa gaitezen etzanak egon
 Geran lozorro luzetik,
 Ikus dezagun izkuntz maitea
 Birjaiotzen berritotik:
 Baldin badegu alde bat uzten
 Gure biotz nobleetatik,
 Agur oitura, erlijio ta
 Siniste onak emendik!
 Agur zorion eta omenak
 Betiko Euskal-erritik!

Biotz aundia duten bularrak
 Ez dirade jausbetitzen,
 Atzekabezko egun gorriak
 Ustekabe sortu arren:
 Ez dezaiogun, iñola ere,
 Amari lajatu iltzen,
 Nai baditugu ariñ ikusi
 Laño beltzaen truk emen,
 Libertadezko eguzkiaren
 Errañuak distiatzen.